

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LANTZIEGOKO UDALA****Hasierako onespena ematea Lantziegoko A-320 errepidearekiko loturan (74+980 KP) "los Terreros" bidea egokitzeko desjabetze proiektuari, baterako tasazioaren prozeduraren bidez**

Hasita dago nahitaezko desjabetze espedientea, beharrezko ondasun eta eskubideak okupatzeko, baterako tasazioaren prozeduraren bidez, Lantziegoko A-320 errepidearekiko loturan (74+980 KP) "los Terreros" bidea egokitzeko lanak egiteko.

Udalbatzak, 2021eko martxoaren 31ko ohiko bilkuran, ekitaldira bertaratutako kideen aldeko sei botorekin eta abstentzio batekin,

Erabaki zuen

Hasierako onespena ematea Lantziegoko A-320 errepidearekiko loturan (74+980 KP) "los Terreros" bidea egokitzeko desjabetze proiektuari, obrak egin ahal izateko beharrezko ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko, eta proiektua, obra proiektuen ondorioetarako soilik, jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, ALHAOn argitaratutako iragarki baten bidez, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten azpiegitura interes orokorreko zat jotzea justifikatzen duten inguruabarrei buruz.

Eragindako jabeen eta ondasunen zerrenda argitaratzen da, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta zerrenda horretan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko behar diren datu guztiak eman ditzaten. Udal honen idazkaritzan ere egongo da espedientea interesdunen eskura.

ERANSKINA: ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

POLIGONOA	LURZATIA	KATASTROKO TITULARRA	JABETZA ERREGISTROA	DESJABETU BEHARREKO M2
5	1873	MIGUEL ANGEL SAENZ DE LA CUESTA RODRIGUEZ M ³ PILAR MARTELES RIPA	LIBURUKIA: 991 LIBURUA: 54 ORRIALDEA: 86	127,85
5	1874	MANUEL UGARTE ORBISO JARAUNTSI BANATUGABEA	EZ DA AGERI	12,55

BALORAZIOA

POLIGONOA	LURZATIA	DESJABETU BEHARREKO AZALERA	BALORAZIOA
5	1873	127,85 M ²	614,93 €
5	1874	12,55 M ²	60,37 €

Ondasunen deskribapen materialean eta legalean akatsak zuzentzeko, edozein pertsona natural edo juridiko agertu ahal izango da, bidezkoak diren zuzenketetarako oinarri gisa balio duten aurrekari edo erreferentzia guztiak alegatzeko eta emateko.

Lantziego, 2021eko apirilaren 12a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA